

## LAN ESKAINTZA

Hezkide Eskolak, Donostiako Elizbarrutiko Gizarte-Heziketarako erakundeak, amatasun ordezkapen baterako, ASTIALDIKO FORMAZIO ETA BOLUNTARIOEN ARDURADUN lanposturako deialdia zabaltzen du.

### BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Hezkide Eskolako idearioarekin bat egitea.
- Arlo sozialean edo heziketa arloan unibertsitate ikasketak eginak izatea.
- Astialdiko Begirale eta Zuzendari ikastaroak eginak izatea.
- Astialdi munduan esperientzia izatea.
- Hitzez zein idatziz euskaraz eta gazteleraz adierazteko gai izatea.
- Informatika erabiltzaile mailan menderatzea (word, korreo elektronikoa, internet).
- Gida baimena eta mugikortasunerako aukera.
- Ordutegian malgutasuna.

### BALORATUKO DIREN JAKINTZA ETA EZAUGARRIAK

- Hezkide Eskolako boluntario izatea.
- B.A.T.eko partaide izatea.
- Formazio munduan esperientzia izatea.
- EGA edo baliokidea izatea.
- Informatikako programa ezberdinen erabilpena: acces, excel, diseinuaren ingurukoak...
- Harremanetarako gaitasuna.
- Limiteak jarri eta arauak betearazten jakitea.
- Proiektuak aurrera eraman izana edota proiektuen kudeaketa lanetan esperientzia.

### EGIN BEHARREKO LANA

- Astialdi arloko formazioaz arduratu.
- Boluntarioen arduraduna izan, giza baliabideak kudeatuz.
- Formazioa programatu, kudeatu eta ebaluatu.
- Eskolako Talde Eragilean eta Formazio Lan Taldean parte hartu.
- Eskola barruan sortzen diren beharrei erantzun.

### ESKAINTZEN DENA

Asteko 35 orduko kontratua, amatasun baimena irauten duen bitartean, 2011eko abendutik aurrera.

Interesatuak, kurrikuluma [hezkide@hezkide.org](mailto:hezkide@hezkide.org) korreo elektronikora bidali 2011ko urriaren 14a baino lehen.